

DINAMIKA: NORK ORDEZKATZEN NAU? (Iraupena: 25 minutu)

MATERIALAK:

- Errotulkiak

- Paper jarraitua, A0 edo A2

- Folioak

- Boligrafoak

- A3n inprimatutako 4 eskema


- Karrozero-zinta

Bideratzaileak dinamika aurkeztuko du, hurrengo eskematik abiatuta ordezkari baten ezaugarriak nola bilatu behar dituzten azalduz (5 minutu).

- ESKUAK trebetasun-gaitasunekin edo eskulanekin lotuta daude.

- BIHOTZA sentimenduekin.

- Eta BURUA trebetasun intelektualerekin.



*Ordezkarari baten ezaugarriak azaltzeko eskema*


Ondoren, taldeko kide bakoitzari papera eta boligrafo bat emango zaizkio.

Banaka, arlo bakoitzaren bi ezaugarri aukeratuko dituzte (burua, eskuak eta bihotza, 6 ezaugarri guztira). Horretarako 5 minutu izango dituzte.

Gela 4 taldetan banatu, eta 5 minututan arlo bakoitzeko 3 ezaugarri hautatu beharko dituzte, haien arteko eztabaida eta ulermena sustatuz.

Bukatzeko, talde handiak aukeratu beharko du zer 3 ezaugarri izan behar dituen arlo bakoitzak (burua, eskuak, bihotza) ordezkari egokia izateko(5 minutu).

Azkenik pertsona baten marrazkia egingo da, arlo bakoitzean hautatutako 3 alderdiekin. Orduan, bideratzaileek eurek aukeratutako ezaugarriak azalduko ditu, ordezkariaren bozketaren aurretik argi gera daitezen.



*Dinamikaren amaieran osatu beharreko irudia.*

Marraskia paper handi batean egingo dugU.